



ARABAKO FORU-SUHILTZAILEAK

LEHENA.- Deialdiaren xedea

- a) Suhiltzaile izateko 94 lanpostu huts
- C-2 sailkapen taldekoak.
 - Derrigortasun-data duten hizkuntza-eskakizuna duten lanpostu hutsak bete nahi dituzten pertsonen deialdiaren 9. oinarrian aurreikusitako eran egiaztatu beharko dute.

BIGARRENA.- Parte hartzeko betekizunak.

- a) **Aldez aurretik eskaera** betetzea.
- b) Europar Batasuneko Estatukide bateko nazionalitatea izatea.
- c) **16 urte beteta izatea** eta nahitaezko erretiroko adinera iritsi gabe izatea.
- d) Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, eskola-graduatu titulua edo goragoko mailako beste edozein titulu izatea edo lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- e) **Gidabaimena: C+E**
- f) Oinarrietako I. Eranskinean agertzen den baztertze taularekin bat etorritik, suhiltzaileei dagozkien lanak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- g) Aurreko betekizun guztiak izan beharko dira eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako.

HIRUGARRENA.- Eskaerak aurkeztea

- a) Eskaerak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako web orrian daude eskuragarri.
www.arkauteakademia.eus
- b) Epea: 2017ko apirilaren 25eko 24:00ak arte.

LAUGARRENA.- Hautaketa-sistema.

- a) Oposizio-lehiaketa
- b) Euskararen ezagutzagatik lortutako puntuazioarekin gehituz.



BOSGARRENA.- Oposizioa

Honako probak egingo dira bata bestearen atzean:

1) Lehen ariketa

- a) Lehen proba, proba orokorra, nahitaezkoa eta baztertzaila, ezagutzei buruzkoa, (test erakoa) gai-zerrenda orokorra, II. Eranskina. Proba hori 0tik 36 puntura bitartean baloratuko da. Proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa 18 puntukoa izango da.
- b) Bigarren proba, proba espezifikoa, nahitaezkoa eta baztertzaila, gai-zerrenda espezifikoarekin lotutako proba, III. Eranskina. Proba hori 0tik 52 puntura bitartean baloratuko da. Proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa 26koa izango da.

2) Bigarren ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaila, gaitasun fisikoa neurtzekoa, Oinarrietako IV. Eranskinean agertzen diren probak egitean datza. "Gai" edo "Ez gai" kalifikazioa lortu behar da. Ariketa osatzen duten proba fisiko bakoitzean gai emaitza lortu beharko dute baztertuak ez izateko.

3) Hirugarren ariketa, kamioia gidatzeko proba. **Borondatezkoa eta ez baztertzaila**, eta gehienez 12 punturekin baloratuko dena.

SEIGARRENA.- Euskara-egagutzaren balorazioa

Bete beharrezkotzat jotzen ez den plazetarako, lehiaketa-fasean merezimendu gisa baloratuko da.

1. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea: 5 puntu

2. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea: 10 puntu

Agiriak egiaztatuta eta proba espezifikoen bitartez.

ZAZPIGARRENA.- Lehiaketa-fasea

Izangaiek alegatutako balorazioa egitean eta hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran -hala egiaztatu dituztenek- oposizio-fasea gainditu dutenen balorazioa egitean datza.

Erakunde Autonomoan emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira **hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran**, interesdunek hala egiaztatu behar ez badute ere. Esandakoak ofizioz egiaztatuko dira.